




BEZEROEN SEGMENTUA

Gure kasuan, salduko dugun produktua, **emakumeei bideratuta** dagoenez, gure bezero gehienak emakumeak izango dira. Aipatu dugun bezala, lepoko honen helburu nagusia emakumeen **segurtasuna bermatzea** da. Gure bezero gehienak emakumezkoak izatearen arrazoia, gaur egungo gizartearen egoerari dagokio. Emakumeak ez dira segurtasunarekin ibiltzen kaletik, hau da, emakume asko beldurrez joaten dira kaletik norbait agertuko den erne.

Bestalde, produktua emakume guztei bideratuta badago ere, gehien bat emakume gazteak izango dira gure produktua erosiko dutenak. Izan ere, gaur egun, gazte asko irtetzen dira gauetan segurtasun ezarekin, eta askok bakarrik egiten dute etxerako buelta. Ibilbide hori segurtasun sendimenduarekin egin dezaten lepoko hau erosiko dute, larrialdi batean sentitzen badira, klik bat egitea besterik ez duetalko. Arrazoi horrengatik izango dira emakume gazteak gure produktua erosiko dutenak.



Hala ere, gure produktua gehien bat emakumeei bideratuta badago ere, jende guztiak izango du produktua erosteko aukera, izan ere, segurtasuna bermatzeko lepoko bat da. Hori dela eta, emakumeak nahiz gizonezkoak erosteko ahalmena izango dute. Horregatik, bezeroen parte bat gizonezkoak ere izango dira, kaletik joatean seguru ez badira sentitzen, aukera izango baidute emakumeek bezala sentimentu hori kentzeko.